

Batzuek, alkoholari buruz halako uste batzuk izanda, edanarazi nahi diete edan nahi ez dutenei.

# Zerk batzen gaituen

## BADAKIGU GEURE KASA PENTSATZEN

Alkohola edaten duena errespetatzen badugu ere, batzuentzat ez gara enrollatuak.

Baina... ez gara edaten hasiko lagun batzuek esaten dutelako, alkohol enpresei interesatzen zaielako edo toki batzuetan gutxiengoan egoten garelako.

Eta edaten badute...

Gauza bat uler dezatela: beraiek alkohola nahi dutelako edaten duten bezala, guk nahi ez dugulako ez dugu edaten.

:-| Lagunak bagara, elkar errespetatzen dugu. Eta hala ez bada, bakoitza bere bidetik.